

BERDINTASUN BATZORDEKO EKINTZA PROPOSAMENA

2013an Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak, Zentroen Arautegi Markoari jarraiki Berdintasunerako Batzordea osatu zuen. Berdintasunerako Batzordeak Fakultateak berdintasun arloan burutuko dituen ekintzak bideratzeko proposamenak egitea du helburu. Helburu honi jarraituz Berdintasun Batzordeak UPV/EHUko I. Berdintasun Plana 2010-2013 aztertu zuen, bertan proposatzen diren zein helburu eta ekintzetan Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak ekarpenak egin ditzakeen adierazteko.

UPV/EHUko I. Berdintasun Planean jasotzen den bezala, plana emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoaren, barnean kokatzen da. Bertan Administrazio Publikoek zein enpresek, lege eta arautegi ezberdinak berdintasun arloan ezarritako helburuak lortzeko Planak landu behar dituztela adierazten da.

Berdintasunerako Batzordeak egiten dituen ekintza proposamen hauen helburua Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak berdintasunarekin duen konpromisoa berretsi eta era estrategikoan berdintasunean aurre-pausuak egiteko tresna izatea da

I GENERO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA IRAKASKUNTZAN

1.1 Irakaskuntzaren arloan genero ikuspegia eta ikuspegi feminista barnera daitezen sustatzea

- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Berdintasunerako Batzordeak gradu eta gradu-ondoen mapa egingo du, edukiak genero ikuspegia jasotzen duten hala ez aztertuz.
- Berdintasunerako Batzordean zein irakasgai genero ikuspegiaren arabera ematen diren aztertuko du.

1.2 Emakumeek ezagutza sortzearen alde eginiko ekarpenak erakustea

- Irakaskuntza gidetako bibliografian emakumeen sortzearen erakusketa sustatzearen aldeko adierazpen bat bultzatzea proposatuko du: 1.. autorearen identifikazioa errazten duten moduan islatzea, 2. Emakumeen ekarpenak jasotzeko bultzada egitea eta 3. berdintasun ikuspegia duten dokumentuak jasotzea.

1.4. Gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea.

- Genero ikuspegia duten lanen erregistro publikoa osatzea
- Genero ikuspegia duten lan hobereenen aurkezpena egiteko jardunaldia antolatu.

2. GENERO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA IKERRUNTZAN

2.1 Ikerkuntzan berdintasuna sustatzea

- Berdintasunerako Batzordeak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean dauden ikerketa talde egonkorren azterketa egingo du.
- Berdintasunerako Batzordeak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko sail ezberdinetan esleituta dauden doktorego bekadunen egoeraren analisia bultzatuko du.

2.2 Ikerkuntzan genero ikuspegia sustatzea, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere

- Ikuspegi feminista duten gradu-ondoko lanen erregistroa osatzea
- Genero ikuspegia jasotzen duten gradu-ondoko ikerketa lan onenen aurkezpenerako jardunaldiak antolatzea.
- Genero ikuspegia duten ikerketa metodologiaren ikastaroak diseinatu eta bultzatu.

3. GENERO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA UPV/EHUren GIZARTE ETA LAN HARREMANETAN

3.1 Bertako langileen lan baldintzetan, prestakuntzakoetan eta sustapenean diskriminaziorik egon ez dadin bermatzea

- Fakultatean langileen artean, antolaketan eta kudeaketan emakumeen parte-hartzea aztertzen duen diagnostikoa egitea bultzatzea
- Fakultateko antolaketan eta kudeaketan emakumeen parte-hartze mailaren jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleak sortzea.

4. GENERO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA UNIBERTSITATEAN, ERAKUNDE PUBLIKO GISA, ETA GIZARTEAN DUEN IRUDIAN

4.1 Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

- Fakultateko organo, epaimahai eta batzordeen konposaketen inguruan informazioa bildu.

4.2 Berdintasunari dagokionez UPV/EHUK gizartean duen irudia

- Fakultateko Batzarrean Unibertsitate Komunitateari hizkeraren erabilera ez-sexista egiteko eskaera jasotzen duten adierazpena onartzeko proposamena egin.
- Dekanotzak eta bertako organoek onartzen dituzten arautegietan, inprimaki eta komunikazioetan hizkeraren erabilera sexista zuzentzea bultzatzea.